

# PASAJES DE SAN JUAN

PROGRAMA DE FIESTAS
DE SAN JUAN BAUTISTA

**1972**

## 1972 garren hurteko Sanjuanak

JAIEN EGITARAUA



Los días 17 y 18 de junio (sábado y domingo) a las 4 de la tarde y 10 de la mañana respectivamente y en la Plaza de Santiago se celebrarán el VII Concurso Infantil local de pintura y dibujo y I de Grabado y modelado.

**Día 23 de junio (viernes):**

A las 7 de la tarde: La comparsa de cabezudos, acompañados de los txistularis, recorrerán la población con alegres kale-giras.

A las 7 y media: Solemne acto de BENDICION DEL ARBOL DE SAN JUAN en la Plaza de Santiago.

A continuación y en la misma plaza el grupo de bailes vascos, ejecutará el tradicional Aurresku, ante el árbol.

A las 9 y media: SOLEMNE SALVE, en la Iglesia Parroquial.

De 10 a 2 noche: Música de baile amenizada por Orquesta.

**24 de junio (sábado) San Juan Bautista:**

**FIESTA VASCA INFANTIL**

A las 8 de la mañana: Alborada por la banda de txistularis.

A las 8 y media: Formación de la comitiva de niños ataviados con trajes típicos, que acompañados de los txistularis se dirigirán a la Parroquia.

A las 9: Misa Vasca Infantil, con participación de los niños.

A las 10 y media: SOLEMNE MISA MAYOR en la Parroquia del Santo Patrón.

A las 11 y media: Concentración en Meipi de todos los niños y salida hacia la plaza de Santiago del desfile compuesto de: banda de txistularis, grupos de baile, tamborrada, niños ataviados con trajes típicos y carroza.

A las 12 y media: En la Plaza de Santiago, festival a cargo de los niños consistente en: Saludo, concierto de txistularis, reparto de premios de los concursos de pintura, grabado y modelado y finalmente actuación de la tamborrada.

A las 4 y media de la tarde: Desfile hasta la Plaza de Santiago de los grupos de baile.

A las 5: Festival vasco infantil con actuación de los grupos de baile, txistularis, sokatira, arrijasotzalles, aizkolaris, todos ellos infantiles.

A continuación del festival, ROMERIA.

Finalizada la romería, música de baile hasta las 10 de la noche.

De 10 y media a 2 noche: Continuación de música de baile.

**25 de junio (domingo):**

A las 9 de la mañana: Alborada por los txistularis.

A las 11: Divertidos juegos infantiles con lanzamiento de globos y bombas japonesas en sus intermedios.

A las 12 y media: Una vez finalizado el desfile por las calles de la población, tendrá lugar en la Plaza de Santiago la actuación de un grupo de MINORETTES, de Rentería, con su espectáculo alegre y divertido.

A las 6 de la tarde: II Concurso Infantil de baile al suelto. Podrán participar en este concurso los niños de la comarca hasta la edad de 14 años inclusive.

Los premios establecidos son:

- 1.º 750 pesetas y trofeos.
- 2.º 600 pesetas y trofeos.
- 3.º 500 pesetas.
- 4.º 400 pesetas.
- 5.º 300 pesetas.
- 6.º 200 pesetas.

Al resto de participantes se les abonará la cantidad de 150 pesetas en concepto de dietas.

Se establece un premio de 500 pesetas para la pareja participante mejor ataviada.

A continuación hasta las 10 de la noche música de baile.

De 10 y media a 2 noche: Continuación de la música de baile.

---

Ekainaren 17 an (larunbatean) atsaldeko 4 etan ta 18 an (igandean) goizeko 10 etan Santiago enparantzan herriko umeentzako VII margo-marrazki lehiaketa eta I idantezki ta antzirudi norgehiagoka.

**23 an (Ostiralean)**

Atsaldeko 7 etan—Buruhandi taldeak txistulariekin batera erriko kalean barna joan-etorria egingo dute kalegira alaiean.

7,30 etan—Sanjuan zugatzaren onespena. Hau amaiturik ta enparantza berean eusko-dantzari taldeak zugatzaren aurrean hantxinako Aurreskua dantzatuko du.

9,30 etan—Eliz nagusian urteroko Agurra.

10 etatik gahueko 2 arte—Dantza soinua.

**Ekainaren 24 ean (larunbatean) San Juan Zaindariaren Eguna**

**UMEEN EUSKAL JAIA**

Goizeko 8 etan—Txistularien goizerestia.

8,30 etan—Euskal jazkia eramanen duten umeen jarraigoa osatuko da ta txistulariekin eliz nagusirainoko ibilaldia.

9 etan—Meza nagusia, Zaindariaren Elizan.

11,30 etan—Meipi'n aurren bilketa ta Santiago enparantzara irteera, txistulari, dantza-talde, danborrada, aurrak ta jai-gurdia.

12,30 etan—Santiago enparantzan umeen jaialdia: Agurra, txistularien eresaldia, margo-marrazki lehiaketeetan irabasleei sari banaketa ta azkenik danborrada.

Atsaldeko 4,30 etan—Dantzari-taldeen enparantzarainoko igaroaldia.

5 etan—Umeen eusko jaialdia: dantza taldeak, txistulariak, soka-tira, harrijasotzaileak, haizkolariak agertuko dira ta guztiok umekoxkorrak.

Ondoren erromeria.

Hau amaituta dantza-soinua gahueko 10'k arte.

10 etan asi ta gahueko 2 ak arte—Dantza-soinu gehiago.

**Ekainaren 25 ean (Igandean)**

Goizeko 9 etan—Txistularien goizerestia.

11 etan—Umeentzako joku ta parragarrizko txantxak ta hauen tarteetan, egutontzi ta japondar lerkaiak botako dira.

12,30—Igaroaldia bukaturik dela, Errenderiko Minorettes direlakoak enparantzan bere ikuskizun alai ta zoragarria agertuko dute.

Atsaldeko 6 etan—Umeen Dantza Azkatuzko II lehiaketa.

Inguruko hamalau urte bitarterainoko aur guziak esku har lezakete lehiaketa hontan.

Eskeinitako sariak ok dira:

| | |
|---|---|
| 1 goa | 750 laurleko ta garai-ikurak |
| 2 garren | 600 laurleko ta garai-ikurak |
| 3 garren | 500 laurleko |
| 4 garren | 400 laurleko |
| 5 garren | 300 laurleko |
| 6 garren | 200 laurleko |

Gainontzekoei 150 ogerleko emango zaizkie joan-etorrien ordaintzat.

Bikote hobeto jantziari 500 laurleko saria emango zaio.

Ondoren gahueko 10 ak arte dantza soinua.

10,30 etatik 2 ak arte—Dantza soinuaren jarraipena.

---

**LAS HOGUERAS DE SAN JUAN**

Todavía subsisten en Euskalherria, muchas costumbres, mitos, leyendas y creencias mágicas con regusto de milenios, que forman el fondo del tesoro cultural popular o folklore vasco. Y es la fiesta de San Juan, coincidiendo precisamente con el solsticio de verano que se celebra en Junio = Ekaina (Eki = Eguzki, gaina = cenit), el día que se ve más enriquecido por estas creencias y mitos y es fácil de ver que las hogueras de la noche de San Juan tienen íntima relación con los mitos que se celebraban en honor al sol.

Hace muchos miles de años, cuando nuestros antepasados vivían en cavernas, el fuego era el más eficaz medio para hacer frente a los largos y gélidos inviernos, para poder sobrevivir de alguna manera. En la obscuridad de las cuevas, el fuego representaba para ellos luz y calor, seguridad y defensa contra las temibles fieras, el medio de condimentar sus alimentos, de fundir y trabajar los metales, de cocer sus vasijas de barro y preparar las demás armas y utensilios.

A semejanza de Prometeo, ellos robaron a los dioses la vivificante llama del cielo, el prodigio que hace revivir los cuerpos y almas, la fuerza prodigiosa que hizo diseminar por lo largo y ancho del mundo el ansia de vivir del hombre, ese trozo, reflejo y figura del sol que habían logrado dominar y domesticar: el fuego.

Pasado el largo invierno, no es de extrañar verlos salidos de sus oscuros antros celebrar el solsticio con grandes fiestas alrededor de la hoguera que al anochecer encendían, con danzas, cánticos y gritos de júbilo. Toda la naturaleza les aparecía trasformada, toda la tierra adornada con las manifestaciones de vida, limpio y resplandeciente el cielo, la tierra colmada de frutos y granos, enjoyada de flores, embellecida de frondosos árboles, y en el azul el sol platónico emanando vida.

Cuando el sol llegara al cénit, era el momento propicio para demostrarle agradecimiento y alegría. Pero, ¿cómo mejor que con el fuego? De ahí, sin duda, el origen y la raíz de las hogueras de San Juan. Pero otras muchas costumbres y ritos de este mismo día, ¿de dónde proceden?

Es de creer que se los atribuyeron a ese mismo sol, que más que dios sería Madrina (Amandre, como se llama en algunos pueblos vascos), todo el poder y la fuerza para producir aquellos prodigios que tenían a la vista, a ese sol que ahuyentaba enfermedades y males y esparcía bienes y dones.

Esos árboles de San Juan, con las ramas repletas de cerezas, plantados en medio de la plaza; esas ramas de fresno o acebo que adornan puertas y ventanas; robles y los ramos de hierbas de San Juan que se quemaban en las hogueras, la creencia de que pasando a un niño herniado entre las dos ramas principales de un roble por dos hombres que se llamasen Juan y mientras sonaban las campanas de medianoche, la hernia del niño quedaba curada; el recoger ramas de acebo blando para preservarse del rayo, la creencia de que en la mañana de San Juan el sol sale danzando, que en esa misma mañana unas cuantas enfermedades quedaban curadas con manojos de hierbas o bañándose en el rocío y otras muchas y raras creencias. ¿No son acaso una reminiscencia de ese poder e influjo que se le atribuye al sol?

Por desgracia estas costumbres van camino del olvido o están ya en él. Y visto esto, no podemos preguntarnos pronto si San Juan se fue (Juan zan).

## SAN JUANETAKO SUAK

Euskalherrian ba dira oraindik ere herrijakintzaren (folklorean) altxorra osatzen duten aintzina-kutsuko makiña bat ohitura, ipui, elezar, ta aztikerizko sinisteak. Ta Donibane eguna, udaburuarekin bat datorrena, ekainean (eki = eguzki gaina), izen orreko illean ospatzen dana, ohitura hoietaz aberatsenetakoa dugu, ta bespero gabeko suak eguzkiarekin zerikusi aundia ba duela ez da zail nabaitzen.

Orain dela aunitz milla urteko gure asabak, aitzulbetan bizi zirela, orduko negu luzeetako otz ikaragarriei gogor egiteko, nolerebait bizirik irauteko, sua zuten izkillurik egokiena. Illunpetan, sua zuten argi ta berotasun, pizti izugarrien aurkako lasaibide ta babes, jatekoak erre ta egosteko era, menastak urtu'ta lantzeko, ta lurrezko ontziak gogortzeko bidea, ta behar zuten beste tresna ta izkilluak atontzeko. Surik gabe gizona gahureguneko aurrerapenera ez zela iñolaz ere iritxiko aitortu behar.

Prometeo iduri, beudek goi-ortzeari ostu bai zioten jainkotxoen sugar biziemallea, gorputz-gogoak berpiztarazten zituen mirari arrigarria lurbira osoan gizonaren bizimiña zabalduko zuan ahalmen oparotsua, eguzkiaren zati errañu ta irudi bere esku menderatuta zuten sua.

---

Negu luze ta izoztua igarota, ez da arrigarri zulo illunetatik irtenik, eguzkiari berebiziko jaikundeak egiten ikustea, dantza, abesti ta irrintzi alaiez gaualdean piztutako suaren inguruan ekaina, udaburua ospatzen. Izadi osoa antzaldatuta agertzen bai zitzaien, lurbira guztia biziaren azalpenez jantzita, goia oskarbi ta disdiratsu, lurra zitu ta aloz naro, loreez pitxituta, zugaitz orritsuz edertuta, ta urdinean, eguzkia bakar, bizia edatzen.

Eguzkia gingan (goi-goienean) zegoenean, orduan zuten berari eskerrona ta poza erakusteko une berezia. Nola, bada, obekiago asmo hori bete suaren bidez baino? Orduzkeroztik dugu, noski, Donibane aurre-gabeko su hoien sustrai ta etor buru. Egun hontako, ordea, beste ainbat ohitura ta siniste zaharrak nondik?

Jainko baino Amandre agotzak (zenbait tokitan eguzkiari, oraindik ere Amandre esaten diote) jotzen zuten eguzkiari, uste izatekoa da, erantsiko ziotela bere begien aurrean ikusten zuten ainbeste mirari arrigarri sortarazteko alako ahalmen ta indarra, gaitzak ta eritasunak uxatu, ta ondasun ta doaiak zabaltzen zuan eguzkiari.

San Juan Zugaitzak, adartartean gerezi mordoak ditula, enparantzen erdian zutitzen diren zugaitzak; ate ta leioak apaintzen duten lizar edo elorri adarrak; besperako sutzarretan erretze diren zagi zahar edo San Juan belar-sortak; aritz bateko besanga tartean barrena bi Juan izenekoak bata besteari besoz-beso aur atendunak alkarri eman ta artzen, gaberdiko amabiak jo bitartean; elorri-zuri biltzea Donibane goizean tximistak kalte egin ez dezan; goiz hortan bertan eguzkia dantzan ateratzen dela uzte izateak; egun berean ere zenbait gaitz izurriteak intzetan edo belar usaidun-sortaz sendatzen direla, ta beste olakotsuko siniste pitxi asko ta asko ez al dira eguzkiaren ahalmen ta doaien adierazgarriaren aztarnak?

Azken urteetako beerakada ikusita, gero ez al degu laister esango: SAN JUAN, JUAN ZAN?

---

GARBIZU - Pasajes Avenida de Navarra, 25 800 6-72